



*Inbertsio
Plan berria,
muskiztarren
eskakizunetarako*

/3. orrialdea

*Kultur eta kirol
jardueretarako
diru-laguntzak*

/2. orrialdea

*Parte-hartzea
sustatzeko
postontziak*

/4. orrialdea

*Argiztapen
publiko
eraginkorraren
bigarren fasea*

/5. orrialdea

*Goizale Skaut
Taldea, bizi
eta sentitzea,
ikasteko xedez*

/6. orrialdea

Editoriala

Muskizekin eta bertako herritarrekin konprometituta

Ekintza asko gauzatu dira azken hilabeteotan, baina herritarren partaide-tzarako eta gardentasunerako bideak hobetzen laguntzen diguten horietako batzuk nabarmendu nahi ditut.

2016ko hilabete hauetan, Udalarekin harremanetan jartzeko bide berri bat gaitu dugu, mugikorren aplikazio baten eta Linea Berdea izeneko webgune baten bidez. Tresna hau aurrerapausoa da, udal kudeaketaren esparruko parte-hartze eta gardentasunerako; horri esker, gertakariak eta herritarren proposamenak modu azkarrago eta zuzenagoan kudeatu daitezke.

“Muskizen bizi-kalitatea hobetzeko lan egitea

Ildo horretan, gardentasun atari bat sortzeko lanean ari gara; bertan, informazio garrantzitsuena kontsultatu ahal izango da, bereziki, Muskizko herritarrengan eragin ekonomikoa duen informazioa.

Bestalde, Legegintzaldi Plana amaitzen ari gara; dokumentu horrek Muskizko herritarren, teknikarien eta elkarten ekimenak eta talde politikoen hauteskunde-programak biltzen ditu. Laster jakinaraziko dugun ekintza-programa hau irekia eta malgua da. Datozen urteetan gure ibilbide-liburua izan dadin nahi dugu.

Amaitzeko, hainbat talde politikok egingdako ahalegina nabarmendu nahi dut; izan ere, 5 milioi eurotik gorako inbertsio-plana aurrera ateratu dute. Aipaturako plana modu xehean jorratuko dugu aldikari honetan.

Eskerririk asko zuen konfiantzagatik.

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



Zainduz programak oso balorazio positiboa lortu du

Zainduz programaren erabiltzaileek 4,8 puntuko balorazioa eman diote programari (5 puntutik), eta, era horretan, Udalaren zerbitzu honekin duten erabateko gogobetetzea erakutsi dute. Bukatu berri den 2015. urtean, eskaintzen dituen jarduera kopuruak eta horien erabiltzaile kopuruak gora egin dute. Programa honen izan duen arrakastatik eratorritako hobekuntzak. Gutxi gorabehera, 13.500 euroko aurrekontua eta 172 parte-hartzaile ditu Zainduz programak; bost jarduera-talde hartzen ditu bere baitan, eta inoren laguntza behar duten pertsonen, horien zaintzaileen eta familiaren bizi-kalitatea hobetzeko xedea du. 2015. urtean, 360 ordu bideratu dira ekimen honetara; parte-hartzaileen %92, gutxi gorabehera, Muskizko emakumeak dira.



124.000 euro kultur jardueretarako

Udalak 124.000 euro banatu ditu diru-laguntza gisa, 2016. urtean auzoetan jaiak antolatzeko eta kultur, gazteria eta kirol jarduerak eskaintzeko. Laguntza horietara bideratutako aurrekontu-partidaren zenbatekoa aurreko urtekoaren berbera da; izan ere, egungo udalbatzak udalerriko kultur giroa sustatzearen aldeko apustua egin du.

Diru-laguntzen zenbatekoa ezartzeko irizpide nagusiak aurrekontua, interesa eta jardueraren eragina izan dira. Laguntzak eskuratzeko eskakizunak, berriz, erakunde eskatzailea udalerrian finkatuta egotea eta zerga-obligazioak egunean izatea dira.

Landare-hondakinak etxez etxe biltzeko zerbitzua

Udalak proiektu pilotu bat abiarazi du, landare-hondakinak jasotzeko eta hileko lehenengo eta bigarren astelehenetan zuhaitzak inautesteko. Ekimen honen bidez, Ingurumen Sailak garrarioa bidaliko du, zerbitzua eskatu duten pertsonen etxebizitzetako leku irisgarriren batera. Horretarako, interesdunek bilketa hitzartu beharko dute, 946706000 telefono zenbakia-
ren, Linea Berdea aplikazioaren edo ingurumena@muskiz.com helbide elektronikoren bidez.



Inbertsio plana

Muskizko Udalaren aurtengo inbertsio planak beharizan desberdinei erantzuna ematea du helburu; hala nola, kultura arlokoak, sozialak, irisgarritasuna hobetzea, aisialdia, argiztapena, ur-kanalizazioak edota ondarea berreskuratzea, besteak beste. 2015eko azaroaz geroztik, auzoetako elkarte eta taldeekin lankidetzan jardun izan du udalak, inbertsio-plana prestatu eta, denen artean, ahalik eta sentsibilitate gehien bateratuko dituen akordioak lortzeko. Jarraian, jarduera guztiak zehaztu dira, indarreko ekitaldian gauzatuko diren zenbatekoekin.

El Pobal auzorainoko 4 km-ko pasealeku naturala, ibaiertzetik
1.890.000,00

BHI berria egiteko lurzorua (Etxebizitza eta orubea erostea)
513.106,00

Itsaslurrerako sarbideak
500.000,00

Nesilla
500.000,00

Kiroldegiko belar artifizialeko zelaiak eta Malecón Berria
342.000,00

Lineak eta aginte-mahaiak egokitzea
203.798,66

Carrascal bidea
188.000,00

Udalkutxari egindako itzulketa
164.411,00

Uren kanalizazioa La Campan
123.420,00

2012ko aparteko ordainsaria
102.000,00

La Casería bidea
93.384,68

Kirol-instalazioak eta musika-eskola hobetzeko proiektua
80.000,00

Arenao bidea
78.367,79

Hilerriko arrapala
73.300,00

Haurrentzako jolasen hornikuntza
60.000,00

Seinaleztatzea
50.000,00

Pobeñako lokala
42.434,01

Udaltzaigoaren ibilgailua
40.000,00

Oinezkoen pasabideetako argiteria publikoa
38.000,00

La Campa bidea
28.917,51

Sobalbadun arrapala
27.830,00

Carrascaleko argiteria
27.000,00

Hiri-altzariak
25.000,00

Morenillo bidea
23.341,47

Herritarrek parte-hartzeko proiektua
23.241,68

Baranda instalatzeko hornikuntza
20.000,00

Eguneko Zentroaren 25. urteurrena
20.000,00

Led bonbillen kanpaina
18.997,00

Basoak berreskuratzea
15.716,59

El Haya auzoko garbategia
14.000,00

Edukiontzia eustea
13.939,20

Frontoiko etxolaren teilatua
11.500,00

Villanuevako ur-kanalizazioa
10.000,00

Eguneko Zentroko estimulazio sensorialeko gela
9.680,00

Lauretako ur-kanalizazioa
8.855,39

Villanuevako garbategia
7.300,00

Autonomia atzealdeko hesia
7.100,00

Desfibriladoreak
6.900,00

Osasun Zentroko ateak
5.000,00

Liburutegirako liburuak
4.941,27

Aterpetzeko irisgarritasuna
4.500,00

Giba fregenal espaloia
3.060,69

Aterpetzeko manparak jartzea
2.367,97

Babes zibileko armairuak
700,00



Eskailera mekanikoak konpontzea

50.500 euroko aurrekontuarekin, Udaltzaz Antonio Trueba kaleko eskailera mekanikoak konpontzeko espedienteari hasiera eman dio. Lanak gauzatzeko epea hiru hilabetekoa izango da. Lan horiekin, eskailerek etengabe izan ohi dituzten matxurak konpondu nahi dira, bai eta zenbait kasutan sortzen duten zaratak ezabatu ere. Horrez gain, Udalak arriskuak ekidin nahi ditu, hala eskaileren erabiltzaileengan, nola mantentze-lanez arduratzen diren langileengan.



Aisialdiko baratzeak esleitu dira

Joan den martxoan Pobeña auzoan dau den zazpi hiri-baratzeak esleitzeko zozketa egin zen, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan. Baratzeren bat suertatu zaien Muskiztarrek ustiapena mantentzeak nahiz ureztatzeak sorrarazten dituen gastuak ordaintzeko konpromisoa hartu dute, bai eta lursail horretan soilik ortuariak, frutak edota barazkiak landatzeko ere.

Anhidrido karbonikoaren isurketak %20 murriztea

Muskizek Energia Iraunkorren Ekintza Plana (PAES) aurkeztuko du Europar Batasunean. Testu horretan, hain zuzen ere, 2020. urterako isuritako CO2 kopurua bost mila tona baino gehiagoan murriztera bideraturiko 54 ekimen jasotzen dira guztira. Jarduera horiek efizientzia energetikoa eta hondakin nahiz uraren kudeaketa hobetzea dute helburu, bai eta energia berriztagarrien produkzio zein kontsumoa areagotzea ere. Europara igorri den Plan horrek (PAES), talde politiko guztien berrespena lortu du, Beldurena izan ezik; ekimenak, gainera, EVeren auditoretza gainditu du. Europar aurkeztuko diren 54 ekimen horien erdiak udal instalazioetan efizientzia energetikoa hobetzera bideratutakoak dira.





Ateak zabaltzeko eguna Haurreskolan

Datorren apirilaren 26an, asteartea, ateak zabaltzeko eguna egingo da Acacias kalean dagoen Muskizko Pitxin Haurreskolan. Arratsaldeko 17:00etatik 18:30era bitartean bertako arduradunek zalantza guztiak argituko dizkiete zentroa ezagutu nahi duten gurasoei.



Otsailean banatu da, etxez etxe, Muskizko gida berria

Egungo udalbatzak udalerriko gidaren 3.500 ale editatu ditu, eguneratuta. Gida horiek etxez etxe banatu ziren, joan de otsailean, Muskizko etxe bakoitzean ale bana izan dezaten. Horrez gain, ale-kopuru nahikoa inprimatu dira, bisitariek eta interesa dutenek ere eskuratu dezaten, nahi izanez gero. Horretarako, udalaren bulegoetan eskatu beharko dute, baita Udalean bertan edota Kultur Etxean ere.



Parte-hartzea sustatzeko postontziak

Udal-kudeaketan herritarren parte-hartzea sustatzea helburu duen politikaren baitan, Udala iradokizunetarako postontziak jartzen ari da iragarkietarako panela daukaten auzo eta kokaleku guztietan. Ekimen horren helburu nagusia da, teknologia berriak erabiltzen ez dituzten auzotarrei, hirigunetik urrun bizi direnei batik bat, laguntza eskaintzea udalarekiko komunikazioan.

Guztira 33 postontzi ezarri dira, eta aukera eraginkor bezain azkarra dira udalarekin harremanak izateko, iradokizunak hamabostero biltzen dira-eta. Udalak interesa erakutsi du herritarren parte-hartzerako ekimenak sustatzeari dagokionez; modu horretara, muskiztarren iritziek zehaztuko dituzte zinegotzien agendak eta, azken horiek, lehen eskutik ezagutuko dituzte zeintzuk diren auzotarren kezka eta ardura nagusiak.



Gardentasun Ataria, informazio argi eta egiazkoarekin

Muskizko Udalak Gardentasun Atari berria jarri du martxan, zabaltzen.muskiz.org interneteko helbidearen bidez edota udaleko webguneko erlantz berri baten bidez eskuratu daitekeena. Ekimen hori abiaraztearen helburua da Estatuko Legeak udalari ezartzen dizkion betebeharrak gainditzeko konpromisoa hartzea, eta informazio ulergarri bezain aurrerakoa eskaintzea "Udal irekia" deritzon

udal-filosofiaren baitan. Tresna horren bidez, udalerriko informazio garrantzitsuena helaraziko zaie muskiztarrei, bai eta eragin ekonomikoa duen informazioa ere. Horregatik, atari horren atal garrantzitsuena Gardentasun Edukiei dagokiena da; hala ere, kontsulta pertsonalatuak egiteko aukera ere eskaintzen du atariak, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari erantzuna emanez.



Ingurumenerako eraginkorra den argiztapen publikorako bigarren fasea

Argiztapen publikoa LED motako beste eraginkorrago batekin ordezkatzeko bigarren fasean ari da lanean Udala. Ekimen horrekin, isurpen kutsatzaileak murriztu, farolen argi-gaitasuna handitu eta ordeztutako luminarien gastu energetikoa, gutxienez, %50 gutxitu nahi da.

Egungo udalbatzak guztira 759 luminaria ordezkatzeko lanak esleitzeko espe-

dientea abiarazi du, eta gutxi gorabehera 570.000 euroko inbertsio globala izango du. Ingurumenerako eraginkorra den argiztapen publiko hori Pobeña, Acacias, Oiankas, Muskizko San Julian, Caseria, Rabuda auzoetan eta Autonomia, San Juan eliza eta Ibaiganeko zonaldeetan jarriko da. Lehen fasean, 232.000 euro inbertitu ziren, eta aurtengo udazkenean amaitzea aurreikusi da.



Doako wifi guneak

Muskizko herritarrek eta bisitariek wifia eskuratzeko doako hiru gune dituzte, hain zuzen ere, Meatzari plazan, San Juan landan eta Errotazahar parkean. Zerbitzu horrekin, oinarrizko web nabigazioa bermatu nahi da, aldi berean 600 pertsonak erabili dezaten. Ekimena herritarrei teknologia berriak hurbiltzeko asmoz Udalak egindako ahaleginei esker gauzatu da.



Lerro berdea, gertakariak konpontzeko aplikazioa

Udalak Lerro Berdea abiarazi du, eta herritarrekin komunikatzeko kanal zuzena da, udalerriko gertakariak jakinarazteko eta/edo ingurumenari buruzko kontsultak egiteko. Profesionalen talde batek kontsultak erantzungo ditu, 24/48 orduko epean, eta udal teknikariak arduratuko dira gertakariak konpontzeaz, bai eta erabiltzaileari erabakia zuzenean jakinarazteaz ere.



Hiru landa-bideren berriztatzea amaitu da

Muskizko enpresa batek gauzatu ditu Haya BI-3795 eta Haya N-634 bideen berriztatze lanak. 57.000 euro inguru inbertitu dira, eta honako hauek izan dira egindako lanak: bide-zorua azaletik berriztatzea, zartatutako tarreak konpontzea, eurirak kanalizatzea eta argiztapen-ilara jartzea. Halaber, Behitegirako bidea birgaitzeko lanak ere amaitu dira.



Elkarrizketa



Goizale Skaut Taldea, bizitzaren esperientziatik ikasiaz

Goizale Skaut Taldea 1984an jaio zen, aisialdiaren eta eskautismoaren bidez gizartea eraldatzeko helburuarekin. Balioetan heztea funtsezkoa da elkarte honentzat. Horretarako, hiru zutabetan oinarritu dira: Hezkuntza, Gizartea eta Fedea. Neska-mutilen ikasketak izan da, betidanik, elkartearen helburu nagusia, bizitzatik eta sentipenetatik abiatuta.

G/ Zer da eskaut izatea?

E/ Bizitza-estilo bat da, gauza guztiak beste ikuspegi batetik ikustarazten dizkizu, berezi sentiarazten zaitu... Mundu hau eraldatzea da gure helburua, aurkitu genuen baino egoera hobean utziz. Hau da gure leloa: Behin eskaut, beti eskaut!

G/ Egin dituzuen irtenaldietan, abenturaren bat edo beste gertatuko zitzazuen; adibideren bat kontatzerik?

Gure azken abentura 2013koa da. Bitoria non -Gorbeia mendiaren magalean- euririk harrapatu gintuen, su-inguruan zapiak banatzen ari ginela. Neska-mutikoak babespean jarri genituen, baina ekaitzak ez zuen baretu, eta kazkabarra ere bota zuen, zelaia urez betetzen hasi zelarik. SOS Deiaken berririk ez genuenez, gaztetxoak ebakatu genituen, Zuiako alkatearen eta bertako herritarren laguntzarekin. Bi egunegon frontoian eta Murgiako kiroldegian, eta itzelezko abentura izan zen guretzat.

Gurutze Gorriaren laguntza izan genuela esan zuten egunkarietan eta irratian, eta erabat etsigarria izan zen hori begiraleentzat, ez baitziren agertu ere egin, ez eta gurekin harremanetan jarri ere. Guk geuk atera behar izan genituen babak eltzetik, inoren laguntzarik gabe.

“Belaunaldi berriak indartsu datoz, eskaut izateko gogoz”

G/ Nola animatu dezakegu haur bat eskaut izatera?

E/ Txikienen kasuan, gurasoek ematen dute beti lehendabiziko pausoa. Hala ere, ahoz ahokoak ere garrantzi handia dauka: taldean zeinen ondo ibili den beste norbaiti entzutea, ekintza mordoa egiten dituztela jakitea, abentura mordoa bizitzen dituztela aditzea... beste neska-mutilak ere parte hartzea eramaten ditu, azkenean.

G/ “Harrobia” mantentzeko arazorik izaten ari al zarete?

E/ Zenbait urtez interesdunen kopuruak behera egin du. Une honetan, ordea, inoiz baino hobeto gaude. Guztira 75 neska-mutil ditugu, eta horietatik hamar bat, gainera, begirale izateko ikasten ari dira. Esan dигutenez, hurrengo belaunaldia ere indartsu dator.



POSTONTZIETAN UZTEKO PARTE-HARTZE KUPOIAK

IZENA _____

ABIZENA _____

HELBIDEA _____

NAN _____

TELEFONOA _____

IRADOKIZUNA _____



Tokiko Agenda 21, aztarna ekologikoa eztabaidagai

San Juan Ikastetxeko, Muskizko BHIko eta Somorrostroko Heziketa zentroko hogeita hamar ikasle udal ordezkariekin bildu dira, Eskolako Agenda 21eko Ekintza-Foroaren baitan. Ekimen horri esker ikastetxeek eta Udalak aztarna ekologikoari buruzko proposamen eta jarduera-ildoak trukatu dituzte, hori baita 2015-2016 ikasturterako ingurumen-ekimen horrek proposatzen duen gaia.